Erunt signa in sole et luna, et stellis, et in terris presura gentium. Luc. Cap. 21. V. 25. 26.

1 Gaurco Evangelioac esaten deuscu N. J. Juicioco eguneen aurretic izango dirala Señaleac Ceruan, eta Lurrean. Señale Veneragarriac, bada Jesu Xptoc berac esacutcen euscun bere etorreraren ezaguergarraco. Señale izugarriac, bada ez bacarric guizoniac bilduarturco dira, ezpada Cerua ere moviducoda. Au gurtiau eguia da, dio S.n Juan Chrisostomoc; baña señale oiec gurtioc izan arren ain icaragarriac, eztalibe izango cer icusiric han onecn on duan guentatuco dan Juicioar. Juicio icaragarria, ceñen pensatcen arj diran Santu gurtiac, gueldituc dira icaraturic; eta S.n Pabloc dioanez, ostaz Justua bera salvatuco da. Juicio onetan, S.n Juan Chrisostomoc diguanez, Jaungoicoac eguingo deutzo Justicia bere burubari, eta eguingo deuste ere bere Adisquidiai. Eguingo deutzo bere buruari, bada onetaraco etorrico da Jesu christo Magestade eta poderioz jantciric; Eguingo deuste Justicia bere adisquideai, bada Jesu christoc deri eguiten deutzo egun oni justuen redemtio edo libertadeco eguna: berba baten Juicioco egun onetan artuco dau Jaungoicoac berari eta bere Adisquidiai munduac eguin deuten desprecio eta gaistaqueriem Venganza: ona bertan

neure Sermoiaren asuntoa.

Etorrico da Juicioco eguna, edo Venganceri eguna, guizonac munduagaz aspertcen diranian; eta becatuz ondo asetcen diranian. Arterañu gucetzat misericordiaz bete ric dagoan Jaungoicoa, bera ecin sufritunic becatarien des precio eta gaistaqueriac, arico da aguertcen munduban bere Justicien Zucentasuna. Gora zaitez, Jauna, esaten eutzan David erreguê Santuac zeloz beterie. Abia zaitez eta abiatu zâtez ceure causa jurgatcen. Oraingoiño izan zara misericordiaz betesco Jaungoico bat, eta sofridu ditu zu guizonen gaistaqueriac; baña acorda zaitez, Jauna, tratatcen dozula zure ontasunaz burlatcen diran guizon batzuequin, eta ala aditcera emon eguiezu badaguizula ceure escuz justija eguiten. Au da N. J. Juicioco egune an guertatuco dana: Bada Jaungoicoac berac esaten deuscu Profeta Santu baten aotic: aitcen naizanian ne re escuz justicia eguiten, artuco dot neure enemigoetati venganza, eta sentidu eraingo deutset neure asarrearen pisutasuna. Motivo onegaitic Profeta Santubac dei egui ten deutzo Juicioco egunari Jaungoicoaren eguna: cergai ti egun onetan arturic (ala esateco) bere misericordiaz, beguiratuco deutzo bacarric bere Justiciari. Beste egun guztiac izan dira mundutarrenac, baña egun itsaragarri au izango da Jaungoicuena. Au da zuben

oduba

esaten cuten Jesu Christoc Juizguibai bera preso eguiten etorri
cinanian: onen beste esan deiquezubet nic mundutarrac za
renoi: onec dira zuben egunac, zuben egun alegrere,
eta zorionecuac, zuben diversio eta alegriaco egunac, Jaun
goicoaz aztuac, mundubari bacarric emoten deutzazu
ben egunac, zuben intenzino eta deseo gaiztoac cumplit
cen empleatzen dituzuben egunac: baña acorda zaitece
Jaungoicoaren egun icaragarri arezaz. Nola zubec izan
dozuben cenben dempora, Jaungoicoac artuco dau berea;
ordubari, bere Evangelioan esaten deuscunez, juzgatuco ditu
justiciac; au da juzgatuco ditu ez bacarric munduco
becatubac, baita ere eguin dituben penitencia guzurrez
coac; ez bacarric mundutarren videgabeac, baita ere
oneen conversio eta devocio falsoac; ez bacarric oneen
gaiztaqueriac, baita ere eguin eztituben obra onac; ver
ba baten: artuco dau becatariac bere contra eguin deutzan
becatu guztien venganza oso bat. Yzu gaiztaqueria gene
roz batez ere acordauco dala Jaungoicoa Juicioco egunean,
esaten deuscu David Erregue Santuac; Cergaiti becatariac
asarre erechico deutzo Jaungoicoari? Itanguetan dau Pro
feta Santu onec? Cergaitic esan dituban bere biotzian izu
gauza Jaungoicoari guztiz injuria andia eguiten deutse
nac. Aserratu eraingo deutzo Jaungoicoari becatariac,
cergaiti pensatu daben bere barruban eztagoala Jaungoi
coric. Aserratu eraingo deutzo becatariac Jaungoicoari,

cergatic contu eguindau, Jaungoicoaric badaere, edo
eztitubala icusico bere becatubac, edo aztu dala becatariac
eguindaco vide gabeaz. Asarratu eraguingo deutzo Jaun
goicoari, cergaitic contu eguindau icusi baditu ere Jaun
goicoac bere becatubac, edo eztala acordauco becatu oneic
caz, edo eztentzala contuaic artuco Juicioco egunean.
Baña baquizube cer eguingo daben Jaungoicoac orduan?
Asarraturic becatari onen contra, aguertuco dau bere
Justicien zucentasuna; cergatic aditcera emongo deutzo
mundu gustien aurrean becatari oni, eztala aztu bere
vide gaistoen, eta contuban daucala pecaturic escutatu-
nac. Bai, N. J., egun icaragarri artan Jesu Christo Ma
gestade, eta poderioz beteric bere Aingueru gustiac la
gun ditubala juntaduco ditu Adamen Seme gustiac, eta
oneen aurrean ezagutu eraguingo deutzo becatariari bere
izatea, aditcera emongo deutzo eztala pecaturic bere Jus
ticiatic libratcen danic; bequien aurrean ifinico deutzo
anaco becatu [redacted] aic, ceintzuc becatariac uste eben
inoc ere etzitubala jaquingo, anaco becatu aic, ceñeen
acordatcean becataria bera lotzaturic gueldítcen zan;
anaco becatu aic, ceintzuc etzan atrevitcen esaten bere
adisquideric andienari; oneic gustioc Jaungoicoac Mun
du gustiari erakutsico deutzo, eta juzgatuco ditu Justi
cia gustiz artez, edo zucenaz, au da misericordia bague
co Justiciaz; modu onetan Juzgatuco dau bere Causa,
orain icusico dozube, nola eguingo deuten Justicia bere

adisquidiai:

Escrituria Sagradubac esaten deuscunez Jaungoicoac gauza gustiac eguin ditu justu edo adisquidiac gaiti; oneec gaiti conservatzen dau munduba, eta oneec ezpaliza izan, cembat aldiz onasqueçaz destruiduco eben? orregaiti gogoratu bear dogu au gustian justuen mesedean bada eze eztan bela lograturco merede au Juicioco egunerano: Eguiaz Sn. Juan Chrisostomoc dijuanez, bardin viciza au bertezic ezpaliz, bardin juzgatu bear ezpalen Jaungoicoac mundu au, ez guengue ezagutuco ceintan dizan justuac bertiac baño zorionecoac: contrara esan daiguegu, neque eta trabaju gueiago sufritzen daubela. Bay N. F., mundu onec sarritan narbuten ditu justuac christau Salmaguin, justuac ceintzuc dizan eguiaz humillac, ~~mundu onec~~, mun du onec arcotan burlatu eta desprecialcen ditu; justuac ceintzuc dizan viotzetic pobriac, mundubac arcotan desamparat cen ditu, justuac ceintzuc dizan munduac ecertan eztauca nac, guciemian mundu onec osticopetuzic erabilteen ditu. Au gustian eguia da dio Sn. Juan Chrisostomoc; Baña emeti ezagutu daiguegu obeto Juicioco eguinen bearra, edo necesidadea; bada egun onetan Jaungoicoac eguingo deuste Justicia bere adisquidiai; bada bere Evangelioac dioanez, nola artzaiac auntzac ardietati apartatcen dituban, modu onetan egun artan Jaungoicoac justuac becatarietati aparta duco ditu. Eguiaz mundu onetan vici gazian artean gauza

guztiac nasturic icusten dituguz, nasturic vicijua virtutiaz, inocencia gaistaqueriaz, eguia guzurraz, Religioa Ypocresiaz, eta bitartean justuba aurquitcen da arpinaturic, eta becataria arroturic: Baña egun artan gauza guztiac aguertuco dira berenez izan ciran leguez, bacochari emongo jaco mereciedu daben toquija, aguertuco dira gauzaric escutatuenac, eta Sn. Pablo dioanez, bacochac errecibiduco dau merecidu daben alabanza. Modu onetan Job santubaz verba eguiteco Ypocrita guztien esperanza banatuco da. Christau falso oneen zoriontasun guztia dago Mundubac santutzat eguitean; munduan eguingo justua bere burula eguitean; baña egun artan Jaungoicoac aguertuco dau oneen malicia guztia. Contrara Justuac mundu onetan desprecioz beteric dagocenac, oneen virtutien mundubac barre eguiten dabela, eta oneen intencio guztiac lecu gaistora botatcen dituzala, egun artan aguertuco dira eguzquiac leguez argui eguiten daubela, eta emongo jate merecidauben premioa. Egun artan eguingo deutse Justicia Jaungoicoac humillai, alabatcen dabela oneen humildadea: Bay, N. Ja. ara co Christau euren burubac ecertaco etceuqueen aec, neque, eta trabajuz beteric aurquitcen ciranian, Jaungoicoen voronddatiaz conformatcen ciran aiec, mundubac burlatu, eta despreciatcen cituban, arratu bagaric Jaungoicoagaitic guztia sufritcen euben aic, egun artan icusico dira confianzaz beteric. Modu onetan cumpliduco da Jesu Christoren sentencia miragarri ha, ceñean esaten deuscu humillatcen dana izango dala coronaduba santuben artian.

Azquenic etorrico da Jaungoicoa mundubac ecertan ez ceucan, eta munduben ustez ecertaraco servitcen ezcuberai Justicia egui tera. Mundu onetan ascotan icusten dogu gueijen aldabenac beraiaz ustetcen; cembat pleitu vide gabecoac interesen videz irabarten ez-tirea, eta bitartean errazoia euquen persona ascoc, cembat perse cucio, miseria, neque eta trabaju sufritcen eztitube? Baña Juicio-co egunean persona oneic eguingo ditu Jaungoicoac betico Zori one coac, castiguetan ditubala oneic perseguitcen ditubarrac, eta conde netan ditubala onecen gogortasunac. Modu onetan Juicioco eguna izango da Justuentzat euren gloria, Zoriontasun, eta redencioco eguna.

Orain bada N.C. certan pensatcen dogu? bardin ezagutu ric egui onec, aleguina eguiten ezpadogu, egun artan Justuen aldecoac izateco; egun artan ofendituric dagoan Jaungoicoa arico da becatariagandic satisfacio artcen; egun artan becatariac despre ciatu daben Jaungoico bat arico da venganza gogor bat eguiten. Pensamentu onec Santuric andienac icutu ditu: empleatu gaitecen bada gu ere consideracio onetan. Jaungoicoac Juicioco egune-an eguingo deuste Justicia bere adisquidiai, apartatcen ditubala christan falso, eta gusurtijetatic, apartadu gaitecen bada gu ere onecetatic, eguiazco virtutiari jarraitcen deutzagula; onela egui ten dogula aguertuco gara Juicioco egunean Justuen aldecuac, gure suertia Santuben artian izango da, eta guero gozaun dogu Jaungoicoagaz betico gloria. Amen.

MAN 684

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA